



## REDBICIK BIZIKLETAREN BAROMETROAK BI URTEZ BEHIN EGITEN DUEN AZTERKETAREN EMAITZAK AURKEZTU DITU. 2008-2024

RedBicik bultzatzen duen bizikletaren erabilerari buruzko estatu mailako azterlanaren helburua da herritarren artean bizikletaren erabilera aztertzea, baita bizikletaz eta garraibide hori sustatzen duten politika publikoez duten pertzepzioa aztertzea ere.

Barometroak aurkezten dituen beste ondorio batzuen artean, egiaztatu ahal izan da, adibidez, ohiko txirrindularien ehunekoa 10 puntu igo dela 2008tik, eta bizikletaren erabilera eguneroko mugikortasunarekin lotzen duen jendea bikoiztu egin dela 15 urtean; hala ere, genero-arrakalak bere horretan dirau ibilgailu horren erabileran; gainera, bizikleta partekatuaren sistemak ezagutzen dituzten pertsonen % 84k positiboki baloratzen du hori, eta inkesta egin zaien pertsona gehienak bizikleta sustatzeko politiken oso aldekoak dira.



## ATAL DOKUMENTALA

Gaur egun, 2.900 pieza dokumental baino gehiago gordetzen dira gure datu-basean. Jarraian, interesgarriak iruditzen zaizkigun dokumentu batzuen erreferentzia labur bat aurkeztuko dugu.



### Valentziako Bizikletaren Plan Zuzentzailea

Valentziako Udala.  
2023



Planak hamar urteko epemuga du eta hiru jarduera-ardatzetan oinarritzen da. Lehenengoan, *Bizikleta Sarearen Azpiegitura* izenekoan, hiriko egungo bizikleta ibilbideen sare proiektatua aztertzen da. Bigarrenean, *Sentsibilizazioa, Hezkuntza eta Komunikazioa* izenekoan, bizikletaren erabilera, garraio bide desberdinen erabiltzaileen arteko errespetua eta herritarrak bide-segurtasunean heztea sustatzen duten neurriak ezartzen dira. Hirugarrenean, *Gobernantza eta Kudeaketa* izenekoan, hiriko bizikleta mugikortasunaren kudeaketa hobetzeko mekanismoak proposatzen dira.

### Hiri-mugikortasun jasangarriari buruzko Herritarren Foroaren ondorioak

Ararteko, Euskadiko Herriaren Defendatzailea. 2024ko iraila.



Emisio Txikiko Eremuak, hiri-plan-gintza eta pertsonen mugikortasunerako eta irisgarritasunerako eskubidea izan dira Arartekoak antolatutako mugikortasun jasangarriari buruzko lehen Herritarren Foroan landutako gai nagusiak. Ondorioen dekalogoan, gardentasunean, herritarren parte-hartzean eta hiri inklusiboagoak eta osasungarriagoak lortzeko hiri-eredua aldatzean jarri da arreta.



### Guía para una movilidad ciclista amigable con la edad. Hacer frente a las tendencias en la movilidad activa y el envejecimiento de la población

Universitat Rovira i Virgili eta Bicicleta Club de Catalunya. 2024



Gida ENTOURAGE doktoratu ondoko ikerketa-proiektutik sortu da, Wilbert den Hoed Rovira i Virgili Unibertsitateko Geografia Saileko ikertzailearen eskutik. Lanak, besteak beste, honako hauek ikertzen ditu: nola eta zergatik mugitzen diren adinekoak bizikletaz, eta nola eralda dezakeen bizikleta-sare inklusibo eta seguru batek hiri-mugikortasuna eta hiri-espazioa, politika-, teknika- eta herritar-esparruan aplikatzeko moduko ideia eta tresna zehatzak eskainiz.

### El vuelo de la libélula. Pedalea por la ELA

M<sup>a</sup> Isabel Fernández Aparicio. 2024



Argitalpena lau lagunen zaletasun komun batetik sortzen da: bizikleta, gozamina, paseoak, askatasuna eta alaitasuna moduan ulertuta, eta baita maitasuna, leialtasuna eta elkertasuna bezalako funtsezko balioetan oinarritzen den adiskidetasunaren alde pedalei eragiteko konpromiso moduan ulertuta ere; aldi berean, Kantabriako hainbat lekutan bizikletaz egindako ibilbideen esperientziak ere deskribatzen ditu.



### Actualización de datos de los sistemas de bicicleta pública en España a julio de 2024

Benjamí Aguilar, RedBicico  
Koordinatzaile tekniko.



Txostenak 2024an Espainian mar-txan zeuden 37 bizikleta publikoko sistemak identifikatzen ditu. Lan honetan funtzionamenduan dauden sistemen magnitude tekniko eta ekonomikoen panoramika jasotzen da. Gainera, sistema horiek etorkizunerako dituzten erronketako batzuk ere identifikatzen ditu.



### BiciSismo. Manual de voluntarios en bicicleta

Areli Carreón. Acopio en Bici. 2019



2017ko irailaren 7an Oaxacan eta Chiapasen gertatu zen lurrikararen ondoren, Mexiko Hirian txirindularriek jasaten dituzten harrapaketei erantzuteko antolatuta dagoen Bizikleta Laguntza Sarean parte hartzen duten txirindulari talde batek, kaltetuei laguntzeko bizikleta erabiltzea proposatu zuen. Eskuliburua honek esperientziak sistematizatzen ditu eta jarduteko moduak aurkezten ditu.





### Las Cuentas de la Bicicleta 2024

ConBici eta Gea21. 2024



Las Cuentas de la Bicicleta-ren bigarren edizio honek ez ditu zifrak bakarrik eguneratzen; izan ere, alderdi berrietan murgiltzen da, hala nola, lagundutako bizikleten agerpena, ziklogistika eta haren lan-dilemak, intermodalitatea garatzeko eskakizuna, zikloturismoaren emergentzia eta hustutako Espainiako bizikleta-mugikortasunaren behar espezifikoak.



### Andar en Bici. Cycling / Bizikletan. N° 20



Aldizkariak ziklobidaia interesgarri ugari biltzen ditu, baita Juan Antonio Flechari egindako elkarrizketa eta Kepa Lizarraga doktoreak bizikletan ibiltzeak dakartzan onura psikologikoei buruz egindako lana ere. Bizikleten kulturak eta bizikletei buruzko informazio eguneratuak zenbaki hau aberasten jarraitzen dute.



### Movilidad ciclista y género. Un análisis feminista interseccional

ConBici Bizikletaren Defentsarako Koordinakundearen ekitate arloa. 2023



Azterlanak bizikletaren bidezko mugikortasun iraunkorrari buruzko lehen diagnostiko bat jasotzen du ikuspegi feministatik, emakumeen behar zehatzei buruz gizarte-erakundeekin izandako elkarrizketa eta entzuketatik abiatutako politika publikoekiko konpromisoaren emaitza dena. Azterlanak informazio zehatza biltzen du, ikuspegi kuantitatibotik zein kualitatibotik, bizikletaren mugikortasunak Espainiako testuinguruan duen egoerari buruz. Ikuspegi horrek ikuspuntu feminista txertatzen du, bizikletaz mugitzeko zailtasunak eta erraztasunak modu sakonagoan ulertzeko aukera ematen duena, bai bizikleta erabiltzen dutenenak, bai etorkizunean erabili nahi dutenenak.



### CICLOSFERA #49



Zenbaki honetan, hiriko txirindularitza sustatzeko Europako ekimen fiskalei buruzko erreportaje bat dago, Maddy Nocich, @Car-gobikemomma, karga-bizikleten familiako erabileraren aitzindariari egindako elkarrizketa bat, baita ibilbide, bidaia, musika-gomendio eta osagarrien eta bizikleten aukeraketa interesgarriak ere.



### Manual para el diseño y construcción de ciclo-infraestructura en República Dominicana

Lurreko Zirkulazio eta Garraioiko Institutu Nazionala (INTRANT). 2023



Bizikleta-bideak zuhaizteko irizpide orokorrak jasotzen ditu. Horrez gain, bizikleta-azpiegitura sartzea ere proposatzen du, drainatze jasagarriko hiri-sistemak (DSHS) ezartzeko.




### Gipuzkoan bizikleta garraiobide gisa erabiltzeari buruzko ikerketa soziologikoa

Gipuzkoako Foru Aldundia. 2023




Txosten honek 2023an bizikleta garraiobide gisa hartuta egindako ikerketa soziologiko baten emaitzak jasotzen ditu, inkestetan, elkarrizketetan, eztabaida-taldeetan eta mugikortasuneko adituen talde baten lankidetzan oinarrituta. 2014an egindako antzeko azterlan bat eguneratu du, gipuzkoarrek bizikletarekin duten harremana ardatz hartuta, batez ere garraiobide gisa. Ikerketak azken 10 urteetan bizikletaren erabilera izan duen bilakaerari buruzko ikuspegi bat eskaintzen du, lortutako aurrerapenak eta oraindik ere jarraitzen duten erronkak nabarmenduz.


## ALBISTEAK

**Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra aldatzeko proposamenak bizikleta-zirkulazioko segurtasunerako neurri espezifikoak jasotzen ditu** 


Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra aldatzeko duten neurri berrien helburua da bideetako erabiltzaile ahulenen segurtasun-maila handitzea eta mugikortasun segurua eta jasagarria areagotzea hiri-eremuan. Adibidez, bide mota guztietan 1,5 m-ko alboko distantzia ezartzen du ziklistak aurreratzen dituzten ibilgailuentzat, eta 5 m-ko aurrealdeko segurtasun-distantzia gainerako ibilgailuentzat. Horrez gain, 30 km/h-ko bideetan kontrako noranzkoan bizikletaz zirkulatzeko aukera ezartzen du, alde aurretik seinaleztatuta.

**Emisio Txikiko Eremuak, hiriko ziklabiltate handitzeko aukera. Espainiako Emisio Txikiko Eremuen mapa interaktiboa. MITECO** 

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak Espainiako Emisio Txikiko Eremuen (EGT) mapa interaktiboa egin du. Mapak derrigortutako udalerrri eta uharte-lurralde guztiak erakusten ditu, eta hiru EGT kategoria jasotzen ditu ezarpen-mailaren arabera, indarrean, izapidetzen edo egiteke dauden EGTak bereiziz. Era berean, Klima Aldaketari buruzko Legearen arabera nahitaezkoak ez diren baina, bai borondatez, bai arlo horretako araudi autonomikoa betez, ezartzea erabaki duten udalerrietan indarrean dauden EGTak jasotzen dira.

**Eraikinetako energia-eraginkortasunari eta eraikinetan bizikletentzat aparkalekua sartzeari buruzko 2024/1275 EBren Zuzentarau berria** 

Europako arau berri horrek eraikinetan bizikletentzako aparkalekuak egitea behartzen du.



Emisio Txikiko Eremuak

## AGENDA

**ITS European Congress 2025** 

**Maiatzaren 19tik 21ra. Sevilla.**  
Garraio Sistema Adimendunei buruzko 16. Mundu Biltzarra Sevillako Konbentzio Zentroan egingo da maiatzaren 19tik 21era. Programatutako jardueren artean, mugikortasun seguru eta jasagarriaren arloko jardunbide egokiak eztabaidatzeko eta trukatzeko foro bat eratuko da ITS sektoreko Europako liderren artean.

**Ciclosferia 2025** 

**Maiatzaren 16tik 18ra. Valentzia.**  
Valentziako La Marinak 2025ean hartuko du berrito, eta laugarrenez jarraian, Ciclosferia, Hiriko Txirringularitzaren eta Zikloturismoaren Azoka. Maiatzaren 16, 17 eta 18ko asteburuan izango da. Hiru egun osagarri, osagai, helmuga zikloturista eta abarren azken nobedadeak ezagutzeko. Gastronometak, kontzertuak eta beste jarduerak bazuk ere egongo dira.



**La Bicicleta y la Ciudad 2025, 21. Iberiar Kongresua** 

**Ekainaren 26tik 29ra. Santiago de Compostela.**  
Santiago de Compostelan egingo da La Bicicleta y La Ciudad Iberiar Kongresuaren hurrengo edizioa, 2025eko ekainaren 26tik 29ra. Kongresua Bizikletaren Defentsarako Koordinakundearen (ConBici) eta Zikloturismo eta Bizikleta Erabiltzaileen Portugalgo Federazioaren (FPCUB) ekimen bateratua da, non bizikletaren munduari lotutako ekimen sozialak eta instituzionalak ikusgai jartzen diren.



**Festibike 2025** 

**Ekainaren 13tik 15ra. Madril.**  
Festibikek 25. urteurrena ospatuko du, jarduera-programa zabal batekin eta Bike Test oso batekin, merkatuko berrikuntza guztiak probatzeko. 2025eko ekainaren 13tik 15era izango da Villanueva del Pardillon, Madrilen. Profesionalentzako eta bizikletazaleentzako topagunea.

**Bizikletaren Munduko Foroa** 

Bizikletaren Munduko Foroak urtero biltzen ditu ekintzaileak, adituak, tokiko gobernuak eta interesa duten herritarrak, eztabaidatzeko, ezagutza trukatzeko eta bizikleta mugikortasun modu gisa defendatzeko eta sustatzeko ekintzen proposamenak egiteko. Foro hori egoitza diren herrialdeetako gizar-te zibileko erakundeek antolatzen dute. 2025ean eta 2026an nazioarteko ekitaldi garrantzitsu honetarako egoitza gisa aurkezteko hirien deialdia ireki da.



## Zikloteka. Bizikletaren Dokumentazioa Zentroa

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunean espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. 2016. urtean ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Buletin honetan interesekoak izan daitezkeen argitalpenak eta bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako albisteak biltzen ditugu, baina, horrez gain, zuen laguntasuna jasotzea ere nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzue edo haien berri baldin baduzue, guri helaraztea eskertuko genizueke.

Telefonoz deitzen badiguzue (943 453 526) edo mezu elektronikoko bat bidaltzen baduzue (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzungo dizuegu, eta esku artean duzuen informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko dugu.

### Zikloteka. Bizikletaren Dokumentazio Zentroa

Mandasko Dukearen Pasealekua, 66. 20012 Donostia

T: 943 45 35 26

zikloteka@donostia.eus

www.zikloteka.eus

### Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 09:30 - 18:00\*h.

Larunbata: 10:00 - 14:00 / 15:00 - 19:00h.

Igande eta jai-egunak: 10:00 - 14:00h.

\*Ordubete gehiago ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean

